

Leire Markuerkiaga Arritola-k bere Tesia irakurri du

2014/12/19

2014ko abenduak 18, goizeko 10:30etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Leire Markuerkiaga Arritola Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Polo Garaiako Auditorioan. Tesiaren izenburua An empirical-institutional analysis of factors affecting the Entrepreneurial University eta tesi zuzendariak: Juan Ignacio Igartua eta Nekane Errasti. Gainera Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- Mahaiburua: José Albors Garrigós (Universidad Politécnica de Valencia) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Carlos Ochoa Laburu (EHU-UPV) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Antonio Hidalgo Nuchera (Universidad Politécnica de Madrid (UPM)) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Carlos Garcia Crespo (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.
- Idazkaria: Jaione Ganzarain Epelde (Mondragon Unibertsitatea) Dk. And.

Tesiaren helburu nagusia Unibertsitate Ekintzaile baten eragiten duten faktoreen azterketa enpiriko-instituzionala egitea izan da. Horretarako, Unibertsitate Ekintzaile eredu bat garatu eta enpirikoki egiaztatu da; bertan unibertsitatearen kanpoko inguruneak, barruko ezaugarriak eta ekintzailetasuna bultzatzeko mekanismoak, Unibertsitate Ekintzailearen emaitzetan duten eragina aztertu da. Tesiak ikuspegi kuantitatiboa jarraitu du, estrategia bezala inkesta erabiliz eta analisi unitatea unibertsitatea izanik.

